

DOMINIQUE DUFAU, NOTARIO EUSKALTZALE SENPERTARRA (1880 – 1956)

1. SARRERA

2005eko urrian, Euskaltzaleen Biltzarreko bilkura batean gine-la, HERRIA astekari euskaldunaren Baionako egoitzan, Piarres Charriton euskaltzainak jakinarazi zigun Andres Urrutia euskaltzain-buruak Dominique Dufau notario euskaltzaleaz xehetasun batzuk eskuratu nahi zituela. Berehala, lotu nintzen bilakuntzari : axaletik ezagutzen nuen gizona, barnaxagotik aztertzea merezi zukeela senti bainuen aspaldian. Karia horretara egin ditudan urratsek bertze ba-tzuk ere abiarazi ditu naski zerbaiten biltzeari buruz. Hainbat hobe : gizon hau oso ezezaguna baita ez bakarrik Hegoaldean baina Iparraldean ere eta beraz lehenbiziko lan batek baitu beti osatzearen eta hobetzearen beharra...

Gaur dakigunaren arabera guziz goresgarria gelditzen da, Dominique Dufau-k Euskaltzaleen Biltzarrean, orduko euskal elkar-te nagusian, egin zuen lana. 1926an elkartekide sartu zen eta 1931 diruzain ezarri zuten. Zendu zen urtean, hona zer zioen Louis Dassance elkarteburuak 1956ko Euskaltzaleen Biltzar egunean : « *Dominique Dufau, senpertarra, hogoi urtez goiti batasunaren diru-zain izana ; ororen adixkide nahi zena eta orok maite zutena, hain zen izpiritu argi eta esku zabalekoa, eskuaraz ala erdaraz berdin*

izkiriatzaile pollita eta ixtorio kondatzaile paregabea ». (Ikus 1956ko buruil-urriko Gure Herria, 292. orrialdean)

Alta bada goresgarria da are gehiago gizon hau, bere notariotzako lan ofizialean, Senpereko kofradien araudiak bi hizkuntzetan paratzen zituelarik, euskarari emanaz frantsesaren leku ber-bera. Ez gara guti harritu aurkikuntza hori egin dugunean ! Zer atsegin ezin erranezkoa ! Egitate eredugarria baita hau zinez, elebitasuna ageri ofizialetan erabili behar litzatekeela hegiaraka ari garen euskaltzaleentzat. Hemen agertzen ditugun kofradien arautegiak, « Jondoni-Petri » (Olaso) eta « Jondoni Joani » (Urguri), « jatorrizkoak » dira notariotzako artxiboetarik zuzen-zuzenean heldu zaizkigunak.

Euskarazko artikuluetan bazuen Dominique Dufau-k berezitasun handi bat : « EUSKUAL...» idazten zuen ; itsusia bezain ohargarria da : begientzat itsusia baina Hegoaldeari buruzko irekidura baten seinale garbia ere dauka denbora berean ! « Euskadi » xuxen idazten zuen haatik beti, hainbatetan goraiatzan ere zuelarik, bertzeak bertze, «*Euskaldun emaztea ohiduren begirale*» deitu artikuluan. Hor pasarte biziki hunkigarriak aurkitu ditut, orduko pentsamolde batean oinarrituak badira ere zenbait. « Euskadi » hitzaz izendatzen dituzte orain zenbaitek Hegoaldeko hiru lurralde autonomoak, baina D. Dufau-k Euskal Herri osoa edo « Zazpiak bat » adierazten zuen horrela.



Coll. Pierre Carricaburu

2. HAREN BIZIKO URRATS GARRANTZITSUENAK

Mexiko-n sortua zen 1880ko maiatzaren hamaikan, Zakatécas hirian, San Agustin karrikako laugarrenean.

Aitak, Dominique Dufau zuen izena, semeak bezala! Merkataria zen. Ama berriz, Jeanne-Marie Oxandabaratx. Ameriketara aberastu ziren. Aitaren aita-amak ziren: Auger Dufau eta Marie Engracia Oxoby. Amaren aita-amak aldiz: Jean Oxandabaratx eta Catherine Hirigoyen.

Anaia bat bazuen : Christophe Dufau, urruntxago aipatuko duguna. Arreba bat ere bai : Alexandrine Dufau, hura ere geroxago aipatuko duguna.

Senpereko notario izan zen 1911tik 1941era. Notariotzako bulegoa bere etxean zuen « Gixonkienean », etxe aitzinean, behe-raxago bide bazterreko etxe tipitto horri kontra eraikia zuten aterbe berezian. Idazkari izan zuen Mixel Audiot ainhoarra.



« Gixonkienea » Dufau-tarren etxea, haien denboran. Eskuinaldean borda eta bordaren aitzinean notariotza, véranda gisako emendakin batean baina murriz altxatua ; hor zuen Dominique Dufau notarioak bere lan tokia. Geroztik emendakin bitxi hori kendu zuten.

Bere ikasketak bururaino eramarik, soldadutza ere egin zuen Baionan eta, eskuan dugun gutun batean, etxekoei idazten die zein nardagarria zaion militar bizitza hori ! Marrazkilaria zen eta preseski gutun horretan erakusten digu bere jeinua. Musikaria ere zen, alta, ez bere anaia bezainbat baina musikari ona halere eta gaur oraino oroit dira karrika nagusiko senpertar batzuk D. Dufau entzunik flauta jotzen ari...

1914-1918ko Gerla Handia egin zuen, burutik buru. Gerla hori bukatu baino zenbait hilabete lehenago aita galdu zuten gripa helde bortitz baten ondorioz. Ordutik kasik egunero idatziko du bere etxekoei, ama eta arrebari, bai eta bere anaiari gerlan denari hura ere. Eskuan ditugu gutun horietarik 30 bat eta jakin behar da guziz hunkigarriak direla guziak, zinezko idazle batek bezala isurtzen ditu hitzak, gauza bertsuak errepikatuz baina beti desberdinki itzulikatuz.

Bihotz handiko gizona agertzen zaigu hor eta fededuna. Gutun horietarik batean aipatzen digu ere Jean Ybarnegaray, jadanik famatua bilakatua zenaren ezagutzak egin dituela eta elkarrekin Euskal Herriaz mintzo direla.

Senpereko auzapez egon zen 1919tik 1935era. Berak ez zuen beretzat « auzapez » erraten baina « baldarnapez ». Hitz hori Senpereko inguruetan erabiltzen zela badakigu zeren eta harrian zizelkaturik baitago bizpahiru lekutan bederen ! 1919an, Dominique Dufau eta Alexis Dourisboure biak kontseiluko pasatu ziren baina gero kontseilukoek auzapeza hautatzerakoan izan zituzten gorabeherak : Dufau-k eta Dourisboure-k biek auzapez izan nahi. Lehen bozka itzulian biek boz kopuru bera lortu zuten ; bigarren bozkaldian Dufau nagusitu zen boz batez eta hola sartu zen Senpereko auzapez eta kargu hortan egon 1935a arte, orduan utzi baitzion, bere baitarik, lekua lehenago baztertu zuenaren semeari, Gratien Dourisboure-ri...

Bestaburuetan, elizan, buruzagien aulki berezian ezartzen zen. Senpertar batzuk oroit dira oraino ere ikusirik bera erdian, eskuinean Amotz Hettoko nagusia Xemartin Brave lehen axuanta eta ezkerrean Aspeltzeko nagusia Piarres Camblong bigarren axuanta.

Herriko Etxean bere idazkari zuen Martin Donetch uztariztarra, Arretxean mutikoen eskolako errient ere zena denbora berean. Martin Donetch Euskaltzaleen Biltzarrean zen Dominique Dufau-rekin.

1928an « Conseiller d'Arrondissement » kargua lortuko zuen hauteskunder, « Eskualduna » astekarian ikusi dugun bezala (1928-10-28). Instituzio hori desagertu bide zen gerla ondoan, IV. Errepublika sortzearekin.

Ezkondu zen Senperen, 1931an Angèle Laffitte Barberaenekoarekin. Ezkondu eta bere emaztearen etxean biziko da. Emazte honek bazukeen Piarres Lafitte jakintsu handiarekin ahaide-tasun zerbait, deiturak ez badu arras grafia bera ere, hala irakurtzen da Serge Monier jaunak idatzi liburuan: « Le Père Lafitte : entretiens, souvenirs », 33. orrialdean; hona gure itzulpena :

Piarres Lafitte : «Laffitte izeneko apez batek bataiatu nin-duen, Luhuson. Sortzez senpertia zen. Bitxia dena hau da : ene aitak « Aitatxi » erraten ziola eta beraz ahaide ginatkeela. Apez hori beraz Senperekoa zen, apezen etsai zeuden Laffite-tarren familiakoa. Eta apez hori hil zenean bere iloba neskak haren ehorketatarat etorri ziren arropa gorriz jantzirik ! Geroago, andere horietarik bat mintzatu dut, Dufau notarioarekin ezkondua zen eta, haiekin biekin jan nuen batez, erran zidan ahaidekian izan behar genuela, nahiz ez zuen argitu ahal izan nola. Arropa gorritan azaldu ziren bi neska haietarik bat zen, baina berdin du.»



1937ko urria. Ezkerretik eskuinerat:
- Gaxuxa Laffitte
- Angèle Dufau-Laffitte
- Dominique Dufau

Ezkondu zen beraz « gorri » batekin baina bera politikari « xuria » zen eta hala egon da beti. Bere auzoan bazuen bertze « gorri » bat Bernard Elissetche goi mailako irakaslea. Harekin maiz eztabaidan ari zen baina beti adiskide geldituz halere.

1937ko ekainean, Bilbo frankisten pean erori zenean, handik etorri ziren iheslarien laguntzeko elkarte bat sortu zuten Iparraldean « Comité Catholique d'Accueil et de Répartition » deitua. Buru : Henri-Jean Houbaut Baionako Jaun Apezpikua ; buruorde : De Souhy, kontseilari orokorra, Maule ; Louis Inchauspe, kontseilari orokorra, Donibane Garazi eta Goyeneche kontseilari orokorra, Uztaritze ; idazkari : Louis Dassance inginadore agronomoa, Uztaritze. Kideak, bertzeak bertze : Dominique Dufau, notarioa, Senpere. Ikus horretaz Jean-Claude Larronde historiazalearen liburuan, « Eskualerri-zaleen Biltzarra », 262. orrialdean.

Azpimarratzekoa da Dufau-ren parte hartzea elkarte honetan, dakigularik goraxago aipatu dugun eta adiskide zuen Ybarnegaray erotik bertzaldera jokatu zela.

Euskaltzain urgazle egin zuten Dominique Dufau, 1953an Paul Guilçou bertze senpenter batekin batean. Ikus Euskera XVI, 1971, Bilbao, 252. orrialdean.

Senperen hil zen, 1956ko urtarrilaren 6an, supituki bezala. Ehorzketa hunkigarriak egin zizkioten Euskal Herriko apez, euskaltzale, herritar eta adiskide talde gaitzak parte hartzen zuela. Elizhilerrietan, Charles Cami orduko auzapezak egin zion azken agurra auzapez ohiari.

3. DOMINIQUE DUFAUREN IDAZKI LANAK

Aldizkari eta abar	Noizkoa	Z.	Titulua	Orrialdeak
GURE HERRIA	1924-04	4.	La vieille confrérie d'Amotz	302 – 306

Aldizkari eta abar	Noizkoa	Z.	Titulua	Orrialdeak
SENPEREKO NOTARIOTZA	1928-08	8.	Vieux contrats (1) Cure de Haltsou (1)	430 – 435 465 – 468
	1931-09	5.	En glanant.. Vieux registres et papiers	412 – 421
	1932-05	3.	En glanant.. Vieux registres et papiers	254 – 258
	1932-11	6.	En glanant.. Vieux registres et papiers	548 – 553
	1933-07	4.	En glanant.. Vieux registres et papiers	340 – 353
	1936-01	1.	La Basquaise et les traditions	56 – 66
	1950-03	2.	Euskaldunaren funtsa	108 – 114
	1926-05		Mutuelle Assurance St-Michel (2)	
	1927-04		Mutuelle-Assurance St-Pierre/ Jondoni-Petri Lagungarria	
	1930-01		Mutuelle-Assurance St-Jean/ Jondoni-Joani Lagungarria	
?	1936 (3)	Euskaldun emaztea, ohiduren begirale		
ANTZERKI- GINTZA	?	Etxeko Andere (4) Juan etorri bat Senpererat (4)		
EUSKO JAKINTZA	1947	1.	Senpere, Histoire anecdotique	255 – 263
	1947	2.	Senpere, Histoire anec. (suite)	645 – 654
	1949	3.	Saint-Pée et Sare sous la Révolution Française	385 – 394
GERNIKA	1949-04	7.	La Basquaise et les traditions	10 – 14
	1949-07	8.	Ilunduratik argirat	2 – 3
	1949-12	9.	Garruzeko Eguna	34
	1950-01	10.	L'euskara et Rabelais	33 – 35
	1950-01	11.	Eguberri Amazo	38 56 – 59

Aldizkari eta abar	Noizkoa	Z.	Titulua	Orrialdeak
	1950-07	12.	Ganixen makila	25 – 27
	1950-10	13.	Ganixen ordainbidea	30 – 32
	1951-03	14.	Ilkas euskara	29 – 31
	1951-04	15.	Ezkurra	80 – 81
	1952-03	18.	Noe-ren Arka	32 – 33
AGUR	1954-06	5.	Bi pilotari	11
	1954-12	8.	Eguberri Noël (traduction)	7 9
	1955-02	9.	Anjelus	15 eta 17
	1955-04	10.	Angélus (traduction)	9
	1955-07	11.	Esquisses basques Chants, danses, irrintzina	5 - 6
	1955-09	12.	Etxeko arnoa/ Le vin de la maison (traduction)	7
	1955-10	13.	Gapelua/ Le béret (traduction)	9
	1955-12	14.	Euskaldun zirtoa/ Humour basque (traduction)	11 eta 13

(1) Hau « frantses zaharrear » idatzia da.

(2) Hau ez da bi hizkuntzetan paratu bertze ondoko biak bezala.

(3) Euskaltzaleen Biltzarreko paper laxo batean aurkitu dugu ; idazkiak « 1936 »urtea dakar baina, Dominique Dufau-ren gutun baten arabera, 1948koa da « Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País »-en publikatzeko egina.

(4) Ikus Piarres Larzabalen artikulua, « Eskuarazko teatroa », Gure Herria, 1955, 373. orrialdean : « Dominique Dufau, Senpereko Jaun Notaria, bazinakitena teatrolari zela ? Baditu gure jakinean, bi lan moldatuak, askitto finak : Etxeko Andere eta Juan etorri bat Senpererat.»



Coll. Titta Bastid

1922. Bestaberri. Ezkerretik eskuinerat:

- Jean-Baptiste Donetch, bikarioa, buruhas;
- Jean Barbier, erretora, burukoarekin;
- Dominique Dufau, auzapena, "haut de forme" xapela belauten gainean;
- Christophe Dufau, medikua, "canotier" xapelarekin.

(Lurrean, eskuinetarik, Pierre Daguerre atabalaria).

4. NOTARIO HONEK BI KOFRADIREN ARAUTEGIAK FRANTSESEZ ETA EUSKARAZ EZARRI ZITUEN !

Dominique Dufau-k, 1924ko GURE HERRIAREN zenbaki batean egin zuen artikuluan Senpereko hamahiru kofradia aipatzen dizkigu. Kofradia horien arautegi batzuk berri-berri zizuten, hain xuxen, Dufau Senperen notario zelarik. Adibidez Ibarrungo kofradia, « Saint-Michel » deitua erdaraz gelditu zen baina ondoko urtean, 1927an, Jondoni Petri-rena bi hizkuntzetan eman zuen. 1926an, Euskaltzaleen Biltzarrean sartzeak bere eragina izan zukeela asma daiteke errazki... Geroxeago ere 1930ean berriz bertze kofradia arautegi bat bi hizkuntzetan paratu zuen ! Hona zein diren delako bi araudi edo arautegi elebidun horiek :

a) Statuts de la Mutuelle-Assurance Saint-Pierre/
Jondoni-Petri Lagungarriaren arautegia (Olaso 1927)

b) Statuts de la Mutuelle-Assurance Saint-Jean/
Jondoni-Joani Lagungarriaren arautegia (Urguri 1930)

Xehetasun ttiki bat hasteko. Lehengo kontratuetan badira bi mota :

— bata, « jatorrizkoa », partaide guzien siñaturekin, notariotzan gelditzen dena ;

— bertzea, « jatorrizkoaren kopia autentikoa » notarioak bakarrik siñatua eta jabeari ematen zaiona eta honek berekin atxikitzen duena.

2006ko uztailean, Gaxintoeneko Andde Harisgain adiskideak digu eskuetara eman, lehen-lehenik, « Jondoni-Petri » deituaren, « kopia autentikoa », Andde-ren aita zena, Manez, izan baitzen kofradia horren azkeneko buruzagia. « Kopia autentiko » hortarik gero errega izan zaigu « jatorrizkorat » heltzea eta gero, hasian-hasi, « Jondoni-Joani » deitu bertze kofradia horren auraudiak aurkitzea ere.

Euskaltzaleentzat arautegi hauek guziz estimagarriak dira euskarari ematen dioten lekuarengatik. Axaleko zuzenketa ñimiño batzuk egin dizkiegu, funtsa nehola ere hunkitu gabe : adibidez « Jondoni Petriren » araudietan « hamahirugarren artikulua » « hamabigarren artikulua » baino lehen gertatzen da euskarazko partean, ohargabekeria baten ondorioz, bistan dena eta hala-hala utzi dugu.

Dena den, axaleko kontu horiek utzirik ikus dezagun hemen, oroz gaintetik, euskara frantsesaren maila berean ezarria, Senpereko notarioak, bere eguneroko lan ofizialean ! Zeren, jakin behar baita ere, lege frantsesak ez duela holakorik onartzen eta beraz debekuaren gainditzeko kalipua izan zuela Dominique Dufau-k, kontratuek fitxategi inmobiliarioan publikatze beharrik ez zuten kasuetan bederen ! Erantsi behar dugu, jakingarria baita, arautegi hau idatzi zuenean Senpereko auzapez kargutan ere zela, ez baitu horrek merezimendua ttikitzen !

Andres Urrutia Euskaltzainburu Jaunak —ofizios notario denak— bi dokumentu hauek ‘historikotzat’ dauzka eta dio osoki eredugarriak daudela Hegoaldekoentzat. Haientzat, oraino ere baliagarriak baldin badira, erran dezakegu zinez egintza miresgarria burutu zuela hor Dominique Dufau-k duela laurogei bat urte eta euskarari egin duen ekarpen ohargarriena hor dugula, dudarik gabe.

Hortakotz bi kontratu hauek nahi izan ditugu oso-osoan argitaratu. « Jatorrizkoak » dira eta Christine Sanchette-Lannette

Senpereko Andere notarioaren « minutes » edo artxiboetarik zuzen-zuzenean heldu zaizkigu, berak bilaturik. Eskerrik bizen-bizienak bihurtzen dizkiogu hemendik.

Kontratu edo Arautegi hauek lehengo grafian gertatzen dira baina normahik gaurkotzeak eginen ditu, aldaketatxo hauek segituz:

— ch > x : ichtripu > ixtripu, probetchu > probetxu, eta abar.

— m > n : Sempere > Senpere, zombat > zonbat, eta abar.

— h kendu kontsonanteen ondotik : urthe > urte, Olhaso > Olaso... Utzi, haatik, hitz bakar batzuetan : alha (paître), erhi (doigt)...

— Izen propioak utz hola-hola : Etcheverry, Olhagaray, Haramboure, e.a.

DU 29 AVRIL 1927

-:-:-

STATUTS

de la MUTUELLE-ASSURANCE

"SAINT - PIERRE"

Siège à SAINT-PÉE-SUR-NIVELLE

Quartier d'Olhaso.

-:-:-

-----oO|Oo-----

Étude de M^e D. DUFAU, Notaire
à SAINT-PÉE-SUR-NIVELLE (Basses-Pyrénées)

IMP. MORIN ET MILLANT, 40, RUE D'HAUTEVILLE, PARIS

DU 29 AVRIL 1927



[Handwritten signature]

STATUTS
de la Mutuelle-Assurance

"SAINT-PIERRE".

Siège à Saint-Pée-sur-Nivelle
quartier d'Olhaso.

"Jondoni-Petri" deitzen den
azienda lagungarriaren bitezardeak
edo kondizioneak.

Egon lekhua Semperen
Olhasoko kartierean.

Texte français

Par devant Me Dominique DU-
FAU, notaire à Saint Pée sur Ni-
velle, canton d'Ustaritz (Basses
Pyrénées) soussigné.

Ont comparu:

Monsieur Jean-Baptiste AR-
RIBILLAGA, propriétaire cultiva-
teur, demeurant à Saint Pée sur
Nivelle, maison Musumigelenea.

Monsieur Jean HARI SGAIN,
propriétaire cultivateur, demeu-
rant à Saint Pée sur Nivelle,
quartier Olha maison Gachintonea.

Monsieur Michel CARRICABURU
propriétaire cultivateur, demeu-
rant à Saint Pée sur Nivelle,
quartier Olhasso, maison Motchoa.

Monsieur Jean dit Ganichon
ETCHEVERRY, propriétaire cultiva-
teur, demeurant à Saint Pée sur
Nivelle, quartier Olha, maison
Chillarrenea.

Monsieur Pierre CAMBLONG,
propriétaire cultivateur, demeu-
rant à Saint Pée sur Nivelle,
quartier d'Olhasso, maison Aspel-
tzea.

Monsieur Dominique DAGUERRE

Texte basque



*1992 So. Angu... Notary de...
1992 So. Angu...
Paris*

Dominique DUFAU, Sempereko
Jaun Notariaren aintzinean, Uzta-
ritzeko kantonamenduan, Basses-
Pyrénées-ko Departamenduan,

Agertu dire:

Jean-Baptiste ARRIBILLAGA
laboria, Semperen Musumigelenan
egoten dena.

Jean HARISGAIN, laboraria
Semperen Gachintoenean egoten de-
na.

Michel CARRICABURU, labo-
raria, Semperen Motchoan egoten
dena.

Ganichon ETCHEVERRY, la-
boraria, Semperen Chilarrenean
egoten dena.

Pierre CAMBLONG, labora-
ria, Semperen Aspeltzean egoten
dena.

Dominique DAGUERRE labora

Texte français

propriétaire cultivateur, demeurant à Saint Pée sur Nivelles, quartier Olhasso, maison Barraka.

Monsieur Santiago LASSAGA, restaurateur, demeurant à Saint Pée sur Nivelles, au bourg, maison Elizabidea.

Monsieur Jean-Pierre SAINT-JEAN, propriétaire cultivateur, demeurant à Saint Pée sur Nivelles, quartier d'Urgury, maison Chaldarena.

Lesquels, en vue de la création et constitution d'une assurance mutuelle contre la mortalité du bétail, en ont établi et arrêté les statuts de la manière suivante:

- 1 _____
- 2 _____
- 3 _____
- 4 _____
- 5 _____
- 6 _____
- 7 _____
- 8 _____
- 9 _____
- 10 _____

Texte basque

-ria, Semperen egoten dena Barra-
kan.

Santiago LASSAGA hosta-
lera, Semperen egoten dena Eliza-
bidean.

Jean-Pierre SAINT-JEAN,
laboraria, Semperen egoten dena
Chalderenean.

Zoinek azienden konfraria
baten egindura bati buruz, ezarri
baitituzte bitezardeak edo kondi-
zitoneak gisa huntarat:

11 _____

12 _____

13 _____

14 _____

15 _____

16 _____

17 _____

18 _____

19 _____

20 _____



[Handwritten signature]

Texte français

-- Article Premier --

Il est formé entre les ci-dessus et toutes les personnes qui adhèreront aux présents statuts une Société d'assurances mutuelles, ayant pour objet d'indemniser les sociétaires de la perte ou de la dépréciation des animaux assurés, mais seulement pour cause de mort, maladie incurable, blessure ou sinistre. ;

-- Article Deuxième --

La Société a son siège à Saint Pée sur Nivelles, au quartier d'Olhasso; Elle est dénommée "Saint-Pierre" Elle assure les taureaux, boeufs, vaches, génisses, bouvillons, veaux, à la condition que le bétail réside dans les quartiers d'Olhasso et d'Olha.

-- Articles Troisième et 4ème --

La Société sera administrée par un Président qui remplira en même temps les fonctions de Trésorier et par quatre Commissaires.

Ils sont élus pour un an, mais le Président est rééligible. Les fonctions de Président-Trésorier sont rétribuées SIX CENTS francs pour frais divers.

Celles de Commissaire sont gratuites et sont dévolues par roulement entre les Sociétaires.

Celui qui, sans motif sérieux refuserait ces dites fonctions, serait

Texte basque.

-- Lehen Artikulua --

Egina da, gorago izendatuak diren Jaunen artean eta edozoin presuna kondizione hauk onetsi nahi dituztenen artean, lagungarri bat, aziendetan gertatuko diren bidegabe, domai edo mendretasunen pagatzeko, bainan haatik, lagungarri huntan sartuak izanen diren alimalen malura behar du ekharri heriotzeak, ezin sendatuzko gaitz batek, kolpe batek edo ichtripu batek.

-- Bigarren Artikulua --

Lagungarri hunen egoitza da Semperen Olhasokokartier edo etchealdean; Izendatua da "Jondoni-PETRI".

Seguratzzen ditu zezenak, idiak, behiak, zokorrak, migak eta chahalak, bainan Olhaso eta Olhako kartier edo etchealdetan bakarrik.

- Hirugarren eta Laugarren artikulua -

Lagungarri hau administratua edo erabilia izanen da President edo Buruzagi batez, Tresorierkoa edo moltserokoa eginen duena, eta lau Komisarioriez.

Hautatuak dire urthe batentzat, aldiz, berriz utz liteke kargu berean President edo Buruzagia; hunek hunkituko ditu SEI EHUN libera urthetik **presentzat**

Komisarioen kargua urririkakoa da eta denek aldizka bethe behariko dutena.

Kargu hori, arrazoinik gabe, be-



Handwritten signature or initials.

Texte français

exclu de la Société.

Pour les tournées qu'ils doivent faire pour les évaluations annales, il leur est alloué une indemnité globale de quarante francs.

Chaque année, les nominations des Commissaires ont lieu à la majorité, à la réunion de la Saint-Blaise (3 février)

-- Article Cinquième --

Le Président-Trésorier et les quatre Commissaires, étant administrateurs de la Société, décident des admissions, prononcent les exclusions, fixent les indemnités en cas de sinistre, et statuent en dernier ressort, sans appel, sur toutes les difficultés relatives à l'Association.

Cette Commission délibère en toute matière, à la majorité des voix; celle du Président-Trésorier, est prépondérante.

-- Article Sixième --

Toute personne qui voudra faire assurer son bétail à la Société devra prévenir les Commissaires; ceux-ci examineront avec soin la bête; s'il y avait un doute à son admission, elle sera soumise à la visite du vétérinaire et il sera statué suivant sa décision.

L'assuré qui aura réussi, ou même essayé de tromper la Confrérie en y ~~introduisant~~ faisant introduire une bête

Texte basque



SPD

the nahi ez duenak lagungarri huntarik kampo izanen da. Urtheke esti -muen egiteko urratsenzat bereziak dire, komisarioentzat urthean **berrogoi libera.**

Urthe guziz, komisarioen hautatzea eginen da San Blas egunean, egun hortan egiten den anai guzien bilkuran (otsai -laren hiruan)

-- Bortzgarren Artikulua --

Buruzagi-Moltseroak eta Komisarioek onhetsiko dituzte lagungarrian sartu nahi direnak, hala hala kamporat manatzen ahalko dituzte; malur edo ich -tripu baten ondotik finkatuko dituzte bakotchak eman behar duen diru partea; lagungarriaren harat-hunat eta makur guzietan legea eginen dute. - Manera guziz bozkatuko dire; gehienen bozek manatuko dute. Buruzagiaren bozak bia balio ditu.

-- Seigarren Artikulua --

Lagungarrian aziendak sartu nahi dituztenek beharko dituzte komisariak abisatu; hauk ikusiko eta miatuko dituz -te alimaleak; ez badire satisfos miatuetak izanen dire marechalaz; hunen er-ranak eginen du legea.

Lagungarriaz baliatzen dena edo baliatu nahi duena sarraziz sano ezden alimalerik, inkantean edo bertze mane-ra tcharez erosirik, kamporat emana izanen da, hala nahi badute komisari-

Texte français

tarée, provenant soit d'une enchère publique, soit de toute autre voie mal-saine, sera exclu de la Société s'il en est ainsi décidé par la Commission.

Dès qu'un veau naît, provenant d'une vache assurée à la Confrérie, l'assuré est tenu de prévenir immédiatement les Commissaires, ou au moins l'un d'eux, qui devra constater que le nouveau-né est bien vivant, pour qu'il puisse, le cas échéant, avoir droit à une indemnité.

Lorsqu'un animal assuré, vendu à un non sociétaire, ferait retour pour cause de maladie reconnue par la loi, il sera réintégré dans la confrérie après minutieux examen par le vétérinaire.

-- Article Septième --

Les admissions auront lieu à la Saint-Blaise, et par trimestre commençant le premier mai, le premier août, et le premier novembre de chaque année.


Chaque Sociétaire est tenu de verser un droit d'entrée fixé à **cinq francs par tête de bétail.**

Il indiquera le plus exactement qu'il le pourra la valeur du bétail assuré.

Le plus petite évaluation sera de cinquante francs; les autres, au-dessus, ne pourront être que des multiples de cinquante.

C'est cette évaluation d'origine

Texte basque



oek.

Chahal bat, lagungarri huntan den behi batetik sortzen denean, jabeak beharko du berehala kartiereko komisarioa abisatu eta hunen orde bertze komisario bat. Komisarioak beharko du ikusi chahala bizi denez, behar orduan balio bat lagungarriak emateko.

Lagungarrian den azienda bat saldu ondoan, gibelaratz itzulia bada erit izanez, berriz onhartua izan ditek lagungarrian haatik marechalak ontsa ikusi eta.

-- Zaznigarren Artikulua --

Sartzen ahalko da lagungarrian San Blasez ~~edo~~ edo hiru hilabetetarik maiatzaren, agustuaren eta hazilaren lehenean.

Anai bakotchak emanen du **bortz** libera buru bakotcheko.

Ezautarazi beharko du ahal bezen chuchen azienden balioa edo estimua.

Estimurik ttikiena izanen da berrogoi-ta hamar libera. Handik goiti berrogoi-ta hamar liberaz osotuko dire balioak.

Estimu edo balio hunek jakinara-ziko du, malur edo ichtripu baten ondolik zombat diru beharko duen anai bakotchak eman, despendio guzieren buru

u

u

Texte Français

qui servira de base pour déterminer le quantum des cotisations à payer à chaque sinistre, ainsi que pour toutes autres dépenses s'il y a lieu.

-- Article Huitième --

L'indemnité, en cas de sinistre, sera fixée par les quatre Commissaires d'après la valeur de la bête au jour du sinistre.

Cette indemnité ne pourra dépasser les 80 pour cent du prix d'estimation pour lequel la cotisation est payée; mais elle pourra être moindre, car la valeur réelle de l'animal au moment de son décès devant être fixée par les Commissaires, ce sont les 80 pour cent de ce dernier chiffre qui seront payés à l'assuré.

-- Article Neuvième --

Les Commissaires fixeront le tant pour cent de la cotisation à payer par chaque assuré à chaque sinistre.

Ce tant pour cent ne pourra être inférieur à un pour cent des capitaux assurés.

Les Commissaires préviendront les intéressés quinze jours à l'avance et ceux-ci verseront aux Commissaires de leur section leurs quotes-parts respectives au jour indiqué.

Si les sinistres deviennent par trop fréquents, les cotisations ne se-

Texte basque

egiteko.

-- Zortzigarren Artikulua --

Ichtripu bat denean, komisarioek finkatuko dute eman behar den soma, malura gertatu den egun hartako alimalearen balioaren arabera.

Soma hori ez da, asuratua den kapitalaren ehuneko lau hogoi liberatik goiti gaten ahalko; gutiago izan liteke, zeren, jadanik errana dena, komisarioek behar baitute hiltzen den edo malurtzen den aziendaren balioa finkatu; estimu hunen ehuneko lau hogoi libera dire emanak izanen direnak.

-- Bederatzigarren Artikulua --

Komisarioek finkatuko dute bakotchak, ichtripu bat gertatu eta, zombat beharko duen eman maluraren estaltzeko.

Parte hori ez da ehuneko hogoi sos baino gutiago izanen.

Komisarioek abisatuko dituzte beren anaiak hamabortz egun aintzinetik, eta bakotchak emanen du bere komisarioari zor duena eta ezautarazi egunean.

Malurak edo ichtripuak usu gertatzen badire, hamabortzetik eginen dire pagak.

Bi paga huts egiten dituen anaia

Texte français

ront exigibles que par quinzaine; les règlements des sinistres s'opèreront dans le même délai.

Tout assuré qui aura négligé de payer deux cotisations successives sera, après simple avis verbal de l'un des Commissaires, exclu de la Société.

-- Article Dixième --

Dès qu'une bête est reconnue malade, l'assuré prévient immédiatement les Commissaires; jusqu'à leur arrivée il ne doit se livrer à aucune opération sur l'animal.

Il doit la soigner conformément aux ordres des Commissaires ou du vétérinaire qui l'aura ~~examiné~~ examinée.

Si elle vient à mourir, elle sera payée comme il est dit ci-dessus; si elle demeure infirme ou atteinte d'une maladie de durée et que tout espoir de la sauver est perdu, les quatre Commissaires en exercice s'adjoindront les quatre Commissaires en fonctions l'année précédente et les huit statueront sur les meilleurs moyens d'utiliser la bête malade. S'il s'agit d'un membre cassé, de la colonne vertébrale brisée, mettant l'animal dans l'impossibilité de tout service, il en sera tiré parti, ainsi que le décideront les Commissaires consultés.

La viande de l'animal pourra, le cas échéant, être distribuée entre so-

Texte basque

lagungarritik kampo emana izanen da.
Bere komisarioak hitzez abisatuko du
kasu hortan ematen dena.

-- Hamargarren Artikulua --

Azienda bat eritzen denean, ja-
beak behar ditu berehala komisarioak
abisatu eta ez deusik egin hauk jin
arte.

Komisarioek edo marechalak ma-
natu bezala tratatuko du bere alima-
lea.

Azienda hiltzen bada, gorago er-
-ran den moduan hunkituko du saria.
Alimalea inbalier, edo luzezko, ezin
sendatuzko eritasun batekin gelditzen
bada, komisarioek, aintzineko urteko
komisarioak deitu ondoan, manatuko du-
te zer egin azienda hortaz; gauza be-
ra eginen dute alimaleak hausten badu
membro bat edo bizkar hezurra.

Aziendaren haragia anai guzie-
ri parti liteke.

Lagungarriak ez du salarazten

Texte français

ciétaires.

La Société n'expose pas d'animal malade ou blessé aux enchères publiques. Elle ne s'occupe pas de boîtes, mais si une bête se casse une corne, la plus forte indemnité qui puisse être accordée est de quarante francs; si le dommage est de moindre valeur, il sera estimé et payé suivant décision des Commissaires.

Si un animal meurt de maladie donnant droit à une indemnité de l'Etat, le Sociétaire qui l'aura touchée devra faire retour de pareille somme à la caisse de la Société qui la lui aurait déjà payée.

-- Article Onzième --

Tout sociétaire qui ne soignera pas convenablement un animal malade pourra, suivant décision du Président-Trésorier et Commissaires, être déchu de tout droit à l'indemnité. La Société ne répond pas des sinistres provenant de mauvais traitements manifestes de la part de l'assuré.

-- Article Douzième --

Le produit de tout animal sinistré, pris à la charge par les Commissaires, appartient à la Société.

-- Article Treizième --

Les admissions dans la Société

Texte basque

